

‘Parketarrak’ urriaren 4an itzuliko da euskararen erabilera jolasaren bidez sustatzeko

- Azaroaren 2ra arte, asteartean eta asteazkenetan, jolas-saio dinamizatuak egingo dira haur, neska-mutiko eta gurasoentzat, Goikoplazan eta Zumea plazan.
- Maiatzean egindako lehen saiakera arrakastatsuari jarraipena emango dio udazkeneko edizio honek.

Urrian bueltan izango dugu *Parketarrak*, jolasaren bitartez eta aisialdian euskararen erabilera bultzatu nahi duen ekimena. Joan den udaberrian lortutako arrakasta errepikatu nahian, urrian eta azaroan zehar Goikoplazan eta Zumea plazan garatuko dira dinamizazio ekintza berezi horiek. Hitzorduak, zehazki, hauek izango dira: urriaren 4, 11, 18 eta 25ean (asteartean) Goikoplazan eta urriaren 5, 19 eta 26an eta azaroaren 2an (asteazkenetan) Zumea plazan.

Alex Huitzi, Euskara zinegotziak aurkeztu du ekimena eta Hezten aisialdi euskaltzale eta hezitzaile taldea arduratuko da dinamizazioaz, aurreko saioetan bezala. Hala, “*Parketarrak* arrakastaren bermearekin itzuliko da, ahalmen eraldatzailea duela frogatuta”, esan du zinegotziak eta, gogorarazi duenez, 300 haur eta guraso jarri zituen euskaraz jolasean *Parketarrak*–ek aurreko aldian, “familia askotan euskaraz egiteko ohiturak sustatuz ala jada zituztenak finkatuz”. “Benetan garrantzitsua da haurrek txikitatik euskaraz komunikatzeko gaitasuna garatzea, edozein dela esparrua, eta ekimen honen bitartez ere gure hizkuntzaren kale-erabilerari bultzada eman nahi diogu, beharrezkoa baita”, azaldu duenez.

Bi talde, adinaren arabera

Aurreko aldiko planteamendu bera izango du *Parketarrak*-en udazkeneko edizio honek. Bi talde osatuko dira, adinaren arabera. *Zabu zibu* izenekoa 3 eta 5 urte bitarteko haurrei eta haien senideei zuzenduko zaie eta ordutegia 17:15etik 18:15era izango da, aipatutako egunetan. Kasu honetan, behar beharrezkoa izango da umeak guraso edo helduren batekin joan eta haren laguntzarekin jolastea. Bigarren taldeak *Txirrintxon* du izena eta 6 eta 9 urte bitarteko neska-mutikoek hartu ahalko dute parte, 18:15etik 19:15era, egun berberetan. Parte hartzeko ez da alde aurretik izenik eman behar ezta ezer ordaindu ere, plazara bertara joatea nahikoa izango da.

Andoaingo Udala, 2022ko irailak 23.